



OINARRIZKO EKINTZAK

Gure enpresak ezintasunak dituzten pertsoneri kirola egiten laguntzen die, gimnasio bihurtu dugun lokal batean. Kirola egiten laguntzeko, hainbat talde, hainbat klasetan banatuta egongo dira. Klase hauek 3 modutan banatuta egotea pentsatu dugu: astelehenetan eta astearteetan indarra landuko dugu; asteazkenetan eta ostegunetan aldiz, fisikoa; eta ostiraletan dena batera landuko dugu, hau da, egun intensiboa izango da.

Gure bezeroek ordutegiarekin arazoak izanez gero, bezeroari taldez aldatuko litzaioke bere ordutegira egokitu arte. Gainera, klaserenbat galduko balu, guri idaztearekin soilik, klasean egindako ariketa guztiak lortuko lituzke; izan ere, klaseak grabatu egiten baititugu bezeroek beraien akatsak ikusi eta hobetu ahal izateko.

Larunbatetan, hainbat kirolerako txapelketak prestatzen ditugu gure erronkak gainditzeko, goiz-pasak egiteko, lagunak egiteko eta disfrutatzeko helburuarekin. Esan beharra dago, ez dela beharrezkoa bezeroa txapelketara etortzea, baina guk gomendagarria ikusten dugu astean zehar egindako lanketa erronken bidez praktikan jartzeko aukera izango dutelako. Ildo beretik, bertan kamisetak salduko ditugu gure bezeroentzat, beraien familientzat edo edozein pertsonarentzat.

Taldeetan banatzeko eta fisikoa lantzeko, bezeroen adina kontuan hartuko dugu; 15 urtetik 30 urte arteko pertsonen, indar ariketa mota batzuk egingo dituzte beraien ahalmenaren arabera. 30 urtetik 50 urte artekoek, beste ariketa mota batzuk; eta azkenik, 50 urte gorakoek beste batzuk. 15 urtetik beherakoek ere indarra lantzeko aukera izango dute, baina ariketa moldatu batzuen bidez.

Adinaz gain, ezintasunaren arabera ere gorputz atal desberdinak landuko dituzte; besomotzek adibidez, gorputzeko behe atala indartzeko ariketak egingo dituzte, nahiz eta goi atala ere indartuko duten. Hankamotzek, aldiz, gorputzeko goi atalari zuzendutako ariketa gehiago egingo dituzte atal horiek indartzeko asmoz.



Ezintasun mentala dutenek, gorputzeko goi atala zein behekoa landuko dute, bakoitzaren ahalmena kontuan hartuta. Fisikoa lantzeko ariketak egiteko ere, bakoitzaren ezintasunera egokituko gara.

Hori guztia esanda, gure ordutegia finkoa da, nahiz eta moldaketa batzuk egon daitezken. Ordutegiarekin arazoren bat edukiz gero, orduak aldatzeko edo klasera ez joateako aukera dago. Hala ere, bezero batek klasera etorri ezin badu, bi egun lehenago abisatzearekin nahikoa izango litzateke.

Hurrengo taulan gure ordutegia adierazten dugu

Astlehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata
Aholkularitza 08:00-13:00	Aholkularitza 08:00-13:00	Aholkularitza 08:00-13:00	Aholkularitza 08:00-13:00	Aholkularitza 08:00-13:00	
Indarra 15:00-21:00	Indarra 15:00-21:00	Fisikoa 15:00-21:00	Fisikoa 15:00-21:00	Indar + Fisikoa 15:00-21:00	Txapelketa 10:00-13:00

Indarra eta fisikoa lantzea egokia dela badakigu, baina psikologikoki arazoei aurre egitea ere oso garrantzitsua da gure bezeroen ongizaterako. Aholkularitza saioak banaka egingo dira, baina hori bai, aholkularitza klaseak soilik goizetan ematen dira, arratsaldeetan kirol klaseak ematen ditugulako. Aholkularitza saio horiek edozein pertsonarentzako irekiak dira, baina bezero eta ez bezeroen arteko prezioa desberdina izango da, esaterako, gure bezeroei deskontuak egiten dizkiegulako, hau da, saio bakoitzak kuotaz aparteko ordainketa txiki gehigarri bat edukiko du. Saio hauek jasotzeko bi modu egongo dira: presentzialki, gomendagarriena deritzoguna; edota online, ezarritako ordutegira moldatu ezin izango balira.



G-MEL S.KOOP.

Ezintasunak, trebetasun




Gure zerbitzua eskaini ahal izateko, materiala beste hornitzaile batzuei erosiko diegu; esaterako, Decathlon-eri, beraz, gure bezeroek ez dute materialik eraman beharko. Halere, ura, toaila eta kirola egiteko arropa egokia eramatea gomendatzen dugu.

Gure bezeroak enpresara etortzen direnean, lehenengo gure enpresa zer den, zer egiten den, ordutegiak, txapelketak, eta helburuak aurkeztuko dizkiegu. Aldi berean, beraien informazioa jasoko dugu beraien egoera eta interesak ezagutzeko. Bilera horren ondoren, kasu bakoitza kontuan hartuko dugu, klaseak edo ordutegiak egiten edo sortzen hasteko. Hortaz, bilera egin eta aste batera, bezeroak ordutegia eta behar duen informazio guztia konfirmatuta dei bat jasoko du.



Organigrama honen bidez, gure enpresaren antolakuntza azaltzen dugu.



Enpresaren zuzendari moduan, Oihan egongo da. Kudeatzaile moduan, goizetan Maitanek jardungo du, arratsaldetan aldiz, Irati egongo da kudeatzaile lanak egiten.

Hurrengo mailean, administratiboak eta langileak egongo dira. Administratibo lanetan Goretti egongo da. Jarduera fisikoko eta aholkularitzako langileak Irati, Oihan eta Maitane izango dira.

Goizez izango diren aholkularitza saioetan Irati egongo da zerbitzua eskaintzen, beraz, bezero bakoitzarekin hartu-emanen jardungo da, fisikoki edota ezinezkoa den kasutan digitalki. Aldiz, arratsaldeetako jarduera fisikoetako klaseak Oihan eta Maitanek emango dituzte. Horiek bezeroei egokitutako jarduera fisikoko ariketak jartzeaz arduratuko dira, eta klaseak dibertigarriak eta erosoak egiten saiatuko dira. Gainera, bezero bakoitzaren errendimendu, kezka edota arazoak Iratiri komunikatzeaz arduratuko dira.